

KARIM-ENTZAKO OPARI BAT

KONTSUMO ARDURATSUARI BURUZKO TAILERRA

2007ko urria

Karim-entzako opari bat

Kontsumo arduratsuari buruzko tailerra

Ezagutzen ez dugun norbaitentzako opari bat aukeratzeak hainbat zalantza sortzen dizkigu: "Zer gustatuko zaio gehien? Zer behar du benetan? Zerbaiteko balioko dio?..." Egoera zehatz baten bidez, kontsumo-ondasunen aurrean dugun pentsatzeko eta jarduteko eran eragina duten faktoreak ezagutuko dituzte haurrek: irizpide sozialak, etikoak, ekologikoak, kalitatekoak, ekonomikoak eta berrikuntzari edo osasunari lotutako irizpideak.

GAIA:	Kontsumo Arduratsua. Ingurumena.
HARTZAILEAK:	Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
IRAUPENA:	1 ordu eta 30 minutu
EGILEA:	Fundació Catalana de l'Esplai Intermón Oxfam

Material didaktiko hau UNESCOren Garapen Jasangarrirako Heziketaren Hamarkada 2005-2014 delakoaren esparruan egin da, eta Intermón Oxfam-en Hiritartasun Globalerako Heziketako proposamenaren baitan aurkezten da.

Hiritartasun globalerako heziketa.

Kontsumo arduratsurako heziketa.

Aurkezpena

Goizean jantziko dugun arropa aukeratzen dugunean, txorrota irekitzen dugunean, telebista pizten dugunean edo SMS mezu bat bidaltzen dugunean, kontsumitzen ari gara. Kontsumoa eguneroko ekintza da, eta, askotan, oharkabean egiten dugu.

Kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak ezagutarazi behar ditu eskolak, baina, era berean, haurrak eta gazteak ohartarazi behar ditu ondasunak kontsumitzen dituzten eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak direla eta haien ekintzek ondorioak dituztela.

Ondorioz, kontsumo arduratsurako heziketaren (KAH) asmoa da produktu jakin batzuen alde on edo txarrez haratago doan informazioa ematea. Produktuak arrazionaltasun handiagoz kontsumitzeko ohiturak sustatzen ditu KAHk, baina honetaz jabetzearen garrantzia ere azpimarratu nahi du: ekoizpenean erabiltzen diren baliabide materialak eta energia-baliabideak mugatuak direla, eta horien kontsumoak eragin zuzena zein zeharkakoa duela pertsonen osasunean, bizi-kalitatean eta ingurumenean.

Informazioaren transmisioa eta jokamolde eta ohitura bidezkoagoak eta jasangarriagoak hartzea ikuspegi global batean kokatzen dira; ikuspegi horretan, kontsumoa funtsezkoa da hiritartasuna gauzatzeko eta eraikitzeko.

Kontsumo arduratsurako heziketaren helburua da pertsonak hiritar global bihurtzea: hiritar kontzienteagoa, parte-hartzaileagoa, kritikagoa, arduratsua eta solidarioagoa, hau da, sozialki bidezkoagoa eta, ingurumenari dagokionez, jasangarriagoa izango den gizarte bateko subjektu politikoa.

Honelakoa da kontsumo arduratsurako heziketa:

KRITIKOA


Herritarrak, azterketatik eta gogoetatik abiatuta, beren iritzia eraikitzeko gai izan daitezten eta horren arabera joka dezaten.

AKTIBOA

Herritarrek ohartuki erabakiak har ditzaten eta jardun dezaten bideratzeko.

ARDURATSUA

Herritarrek kontsumo-ekintzen ondorioen gaineko kontzientzia har dezaten.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE


Iturria: PUIG, J. eta beste batzuk, *Educació per a la Ciutadania*, La Galera, 2007

Kontsumo arduratsurako heziketaren helburu orokorrak:

- Kontsumo-ondasunak ekoizteko erabiltzen diren baliabide naturalak eta zuzenean zein zeharka eragiten dituzten ingurumen- eta gizarte-inpaktuak ezagutzea.
- Autonomiaz erosteko gaitasuna sustatzea eta, pertsonen osasunaren, ingurumenaren, zuzentasunaren eta justiziaren aurkakoak ez diren irizpideei jarraituz, beharrak asetzeko erosketak egitea sustatzea.
- Pertsona bakoitzaren benetako beharren kontzientzia hartzen laguntzea, bizi-estiloekin koherente izanez eta gizartearen eta publizitatearen presioa gaindituz.
- Pertsonak kontsumitzaile gisa dituzten eskubide eta betebeharren kontzientzia hartzea.
- Herritarrek kontsumitzaile gisa gizarte- eta ekonomia-sistemaren barruan duten zeregina ulertaraztea, hartara, sisteman eragin dezaten.
- Jarrera kritikoa, arduratsua eta solidarioa hartzea kontsumo-ondasunei eta zerbitzuen erabilerari dagokienez, mundu jasangarriagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko.

Lan-metodologia

Kontsumitzaileok elementu asko behar ditugu kontraesan eta ezkutuko asmo gehiegi dituen kontsumo-errealitatea ulertzeko eta kontsumo-jarrera eta -proposamen alternatiboak garatzeko.

Hezkuntza-estrategia arrakastatsuenetako bat aplikatuko dugu, ikasleek gertukoak dituzten eta kritikoki azter ditzaketen kontsumo-arazo eta -egoerak aurkeztea, hain zuzen. Ikerketa-lana eta arazoen konponketa barne hartzen dituzten egoerak aurkeztuko dizkiegu, hartara, kontsumoaren aurrean norbanakoen zein kolektiboen jokamolde berriak proposa ditzaten denek batera.

Kontsumo arduraturako heziketan, diziplina arteko ikuspuntutik konpon daitezke arazoak, betiere beharrak, pertsona bakoitzaren gizarte-testuingurua eta bizi-estiloak, publizitate-mezuak, kontsumo-ondasunen bizi-zikloen ingurumen- eta gizarte-alderdiak, kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak eta abar kontuan hartuz eta auzitan jarritz.

Egoera arazotsuak konpondu beharrak elkarrekin mintzatzera bultzatzen ditu ikasleak, ikuspuntu berriak eraikitzeke. Norberaren ezagutza eraikitzeke oinarria elkarriketa denez, parte-hartzaileek beren iritziak, sentimenduak eta jardunak kontrajarri behar izaten dituzte, errespetuz betiere .

Tailerraren oinarriak: **EGOERA ARAZOTSUA**

Jarduera testuinguru batean kokatzeko eta parte-hartze aktiboa sustatzeko.

 ELKARRIZKETA ETA NEGOZIAZIOA

Desadostasunaren aurrean errespetua eta norberaren erabakien autonomia sustatzeko.

Hezkuntza-ikuspegia


Tailerrak lau etapa ditu. Lehenengoa motibazio- eta esplorazio-jarduera bat da; ikasleek gaiari buruz dituzten sentimenduak eta ezagutzak adieraztea eta jardueraren helburuak ezagutzea ditu helburu.

Bigarren etapak, jolas-jarduera baten bidez, kontsumoaren fenomenoak hurbiltzen die ikasleei era dibertigarri eta dinamikoan, eta kontsumoari lotutako edukiak aurkezten dizkie.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Ondoren, berregituratze-etapan sartzen da jarduera, ikasleak landutako eduki berriei buruz gogoeta egitera bultzatu nahi duen etapan, alegia.

Azkenik, azken etapan, kontsumo-aukerak aplikatu eta zehaztu egiten dira, ikasleen testuinguruan kontsumo arduratsua sustatzen duten proposamenen bidez.



Hezkuntza-zikloetarako jarraibideak

Kontsumitzeak bizi-estilo bat islatzen du. Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa eta Bigarren Hezkuntza gune pribilegiatuak dira kontsumoaren alderdiak lantzeko, etapa horietan hartzen eta eraikitzen baitituzte haurrek beren bizi-estiloak.

Proposatzen dugun tailerrak jarduera era linealean garatzea ahalbidetzen du, baita tailerraren etapa bakoitzaren helburuetan sakontzea ere, horretarako, aukerako zenbait proposamen didaktiko erabiliz.

Bigarren Hezkuntzan, bereziki interesgarria da publizitate-mezuak eta horien eragina eta norberaren diruaren kudeaketa beregaina aztertzea.

SEKUENTZIA ETA DENBORA

	ETAPA	JARDUERA	IRAUPEN A	ZABALTZEAK
1. JARDUERA	BEHARRA	Karimen herrialdea	20 min	Indian zeharreko bidaia (LH) Kulturartekotasuna bititza (DBH)
2. JARDUERA	AUKERA	Opari-katalogoa	25 min	Publizista ni? (DBH)
3. JARDUERA	KONTSUMO-IRIZPIDEAK	Nire aukera da...	25 min	
4. JARDUERA	KONTSUMO-EKINTZA	Oparirik onena	20 min	

DOKUMENTAZIOA ETA BALIABIDEAK

Oinarrizko irakurketak

Kontsumo arduratsu baterako gida. Kontsumitzaileen eginkizuna Enpresaren Erantzukizun Sozialean. Observatorio Social Corporativa Hispacoop, Madril, 2006.

Kontsumo arduratsu baterako gida (arropari dagokionez), Icaria, Bartzelona, 2002, 87.or.
Kontsumo arduratsua bultzatzeko "Arropa garbia" kanpainaren gida.

MARTINEZ-OROZCO, S.: *Comercio justo, consumo responsable*, Intermón, Bartzelona, 2000, 112 or.
Bidezko merkataritzaren sorrera, garapena eta arazoaren gaur egungo egoera ezagutzeko oinarrizko argitalpena.

Opciones: informació per al consum, Centro de Investigación e Información en Consumo, Bartzelona, 2002.
Hainbat produktu kritikoki aztertzekeo aldizkari monografiko oso interesgarria. Web orrian eskuragarri daude artikuluak.

Sakontzeko irakurketak

B. SCHOR, Juliet: *Nacidos para comprar. Los nuevos consumidores infantiles*, Paidós argit., 2006.

CRIC (Centro de Investigación e Información en Consumo): *Come y calla... o no*, Icaria, 2002.

Globalització, empreses i consum crític. Medi Ambient, Tecnologia i Cultura, 28. zk., Kataluniako Generalitata, Bartzelona, 2000.
Gizarte-ardurak, kontsumo kritikoa eta kontsumo-gizartearen mugak aztertzen dituzten idatziak.

PUJOL, R. M.: *Educación y consumo: la formación del consumidor en la escuela*, ICE Universitat de Barcelona, Bartzelona, 1996.
Kontsumo arduratsurako hezkuntzaren ikuspegia aztertzen du.

La moda al desnudo: doce preguntas sobre las condiciones laborales en la confección textil, Icaria, Bartzelona, 2000.
Ipar-Hego erlazioak eta ehungintzako langileen lan-baldintzak ezagutarazten ditu.

Material didaktikoak

RIGOLA, M. ETA BESTE BATZUK: *Guía educativa para el consumo crítico: materiales para una acción educativa sur-norte: efectos sociales y ambientales del consumo*, Sodepau, Bartzelona, 1998
DBH eta Batxilergoa.

Intermón Oxfamen Global Express bildumako "Kontsumista ni?" kontsumismoari eta kontsumo arduratsuari buruzko proposamen didaktikoa Bigarren Hezkuntzarako

Zatoz gurekin... ondo pasatu nahi baduzu! Turismo arduratsuari buruzko proposamen didaktikoa Bigarren Hezkuntzarako.

CD-ROM didaktikoa. www.cederron.org. Proposamen didaktikoak

Web orriak, bideoak eta jokoak

Escola del Consum
http://www.consum.cat/qui_som/escola_de_consum/tallers/index.html
Kontsumo arduratsuko Andaluziako sarea
www.consumoresponsable.com

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea

www.e-comerciojusto.org

Kontsumitzaileari informazioa emateko Bartzelonako udal-bulegoa.

www.omic.bcn.es

Kontsumo arduratsuko sarea

www.pangea.org/xarxaconsum

Intermón-Oxfam

www.intermonoxfam.org

JARDUERAK

1. Karimen herrialdea

1. Etapa:	ESPLORAZIOA: BEHARRA
Tipologia:	aurkezpena egiteko, motibatze eta iritziak emateko jarduera
Iraupena:	20 minutu
Materiala:	Peters-en munduko mapa politikoa (A3 koloretan). Jatorrizko herrialdearen enigmak (A3 koloretan).

HELBURUAK

- Besteen ideiak kritikoki errespetatzea eta talde-lanetan parte hartzea.
- Adin bereko pertsona baten oinarrizko beharren eta nahien gainean gogoeta egitea, kultura-orientazio berriak kontuan hartuta.
- Indiaren oinarrizko ezaugarri bereizgarrienak ezagutzea jolasaren bidez.

GARAPENA

1. Egoera berezia

Jardueraren hasieran, egoera berezi bat aurkeztuko du hezitzaileak. Jardueraren hasieratik jakingo dute ikasleek itxurazko egoera dela, ez dela benetako gertaera. Horregatik, oso garrantzitsua da hasiko dugun kontsumo-jardueraren helburuak azaltzea eta jarduera rol-joko gisa aurkeztea.

Hezitzailearen aurkezpena:

Nire lagun batek beste herrialde bateko haur bat hartu du etxean. Haurra iritsi berria da, galduta sentitzen da, eta mira egiten du. Zuen adinekoa da, eta urtebetetzea du bihar.

Haurra ongi sentitzeak izugarri kezkatzen du nire laguna, eta urtebetetze- eta ongietorri-oparia egin nahi dio; ez daki, ordea, zer opari izan daitekeen egokiena. Ez ditu ongi ezagutzen zuen adineko haurren gustuak, eta, beraz, produktu-zerrenda bat prestatu du zuek aukeratzen lagun diezaiozuen.

Zein izango da oparirik onena?

Hezitzaileak helburu hau aurkeztuko du: guztien artean haurarentzako opari egokiena aukeratzea. Alabaina, opari egokia aukeratzea ez da dirudien bezain erraza. Horretarako, lehenik,, haurren jatorrizko herrialdea zein den eta nolakoa den ezagutu behar dugu, eta, horrekin batera, haurren gustuak eta beharrak zein izan daitezkeen jakin. Pista- eta igarkizun-dinamika txiki baten bidez, jatorrizko "herrialde ikusezina" "ikusten den" herrialde bihurtu behar dugu.

2. Egin apustu... (aukerako jarduera)

Parte-hartzaileak 4-5 pertsonako taldetan banatuko dira. Talde horietan egingo dituzte tailerreko jarduera guztiak.

Informazioa eskaintzen diguten zenbait pista eta igarkizunen bidez, kide berria nondik etorria den aurkitu behar dute parte-hartzaileek. Herrialdeari buruz dakitenaz eta aurkitu dutenaz hitz egingo dute,, eta handik iritsi berria den pertsona baten sentimenduei buruz eztabaidatuko dute.

Haurra zer herrialdeetatik etorria den ikertzen hasteko, honako konparazio-fitxa hau banatuko diogu talde bakoitzari. Eskaintzen digun informazioaren bidez, herrialde handia edo txikia den, pobrea den... hitzartuko dugu. Talde bakoitzak bi herrialde posible izendatuko ditu, eta, guztion artean, 10 herrialde bozkatuenen zerrenda egingo dugu.

1. JARDUERAKO TAULA: 10 herrialde ikusezinak		
Taldea	Herrialde ikusezina 1. AUKERA	Herrialde ikusezina 2. AUKERA

3. Zein da herrialde ikusezina?

Ondoren, Peters-en mapa politiko bat banatuko diogu talde bakoitzari (DIN A3, koloretan).

Hezitzaileak, banan-banan, **Zein da herrialde ikusezina?** gutun-azaleko aztarnak aterako ditu. Aztarnak honela osatuta daude: herrialde ikusezinari dagokion argazki bat (alde batean) eta ezaugarri bat (beste aldean). Taldeak, aukeratutako 10 herrialdeko zerrendatik, herrialdeak baztertuz joango dira, herrialdea zein den asmatu dutela uste izan arte.

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Ziklorako zabaltzea

INDIAN ZEHARREKO BIDAIA

Jarduerako pertsonaiaren jatorrizko herrialdearen ezaugarrietan sakontzea aholkatzen dugu.

Lantaldeka, Indiako errealitateari buruzko informazioa bilatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako zabaltzea

KULTURARTEKOTASUNA BIZITZEA

Eztabaida baten bidez kulturartekotasunaren gaineko gogoeta egitea aholkatzen dugu.

Eztabaida gidatzeko hezitzailearentzako gidoi posible bat

- Nolakoa izango litzateke zuen bizitza truke kulturalik, teknologikorik, sozialik eta ekonomikorik gabe?
- Uste duzue harremanaren bidez gertatzen diren trukeak onak direla erkidegoak garatzeko?
- Zuen ustez, kultura arteko gatazkak eta gatazka sozialak oztopo ala abiapuntu dira erkidegoak garatzeko?
- Zuen ustez, arrazismoa migrazio-fenomenoaren ondorio edo bestelako gizarte-arazoaren sintoma da?

Jarduerari buruzko informazio gehiago:

Sanduk. Guia per a la formació de monitors i monitores en la interculturalitat i immigració.

JARDUERAK

2. Oparien katalogoa

2. Etapa: EDUKIAK AURKEZTEKO ETAPA: AUKERA**Tipologia:** ikuspuntu berriak aurkezteko jarduera**Iraupena:** 30 minutu**Materiala:** produktuen katalogoa eta iragarki-kartelak.

HELBURUAK

- Kontsumo-ekintzetan eragina duten faktoreei buruz gogoeta egitea.
- Komunikabideetako mezuen estetikaz, garrantziaz, protagonismoaz eta eraginkortasunaz ohartzea.
- Jarrera kritikoa hartzea publizitate-mezuek sustatzen dituzten manipulazio eta diskriminazioen aurrean.

GARAPENA

1. Zer eros dezakegu?

Tailerraren etapa honetan, zerrendako lau produktu-moten arteko bat aukeratu behar du talde bakoitzak. Horretarako, parte-hartzaileek honako hauek hartu behar dituzte kontuan: haurraren jatorria eta izan litzakeen behar eta gustuak (hemengo modan janzteko arropa; praktikoagoa den zerbait, adibidez, oinetakoak; mugikor bat, errazago komunikatzeko eta integratzeko; produktu ludikoago bat...). Aukeratzeko emandako produktuak erakargarriak dira adin horretako haurrentzat, egunero erabiltzen dituztenak dira, hala nola mugikor bat, jeansak, kirol-zapatilak....

Taldean, oparia egiteko gutxi gorabehera zenbat diru dagoen zehaztu behar dute. Gomendatzen dugu diru-kopuruaren eta opari-motaren gaineko eztabaida era aski irekian planteatzea Bigarren Hezkuntzan, eta era zehatzagoan, berriz, Lehen Hezkuntzan.

Hezitzaileak produktu-katalogo txiki bat emango dio talde bakoitzari. Hamabi produktu dira, kontsumo-ondasunen lau tipologiatan multzokatuta.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

	Produktu-tipologia			
	1. tipologia OINETAKOAK	2. tipologia ARROPA	3. tipologia TEKNOLOGIA BERRIAK	4. tipologia AISIALDIKO PRODUKTUAK
A produktua	Kirol-zapatila sintetikoak	Ehun sintetikoazko kirol-kamiseta	Hondakin toxiko gutxiko mugikorra	Bidezko merkataritzako futbol-baloia
B produktua	Larruzko kirol-zapatilak	Jeansak	Eguzkiarekin kargatzen den mugikorra	Barçako baloia, sinatua
C produktua	Sandalia menorcarrak	Bigarren eskuko larruzko jaka	Mugikor modernoa	Joko tradizionalen bilduma

2. Produktuen katalogoa

Produktu-katalogoak eskaintzen duen informazioa aztertuko dute taldeek. Produktu bakoitzak baditu bere publizitate-kartela eta prezioa zein oinarrizko ezaugarriak (etiketako informazioa, jatorria, erabilitako materialak...) zehazten dituen fitxa.

Bigarren Hezkuntzako ikasleekin jarduera zabaltzea gomendatzen dugu, publizitatearen tratamenduan eta mezuetan sakontzeko; horretarako, publizitate-kartelen adibideak daude katalogoan. Gainera

Bigarren Hezkuntzarako zabaltzea (Iraupena: ordubete)	
PUBLIZISTA NI?	
Publizitatearen alorrean eta iragarkien mezuetan sakontzea gomendatzen dugu; publizitate-kartelen azterketa objektibo eta subjektiboa eginez eta taldeen arteko elkarrizketaren bidez egin liteke.	
AZTERKETA OBJEKTIBORAKO JARRAIBIDEAK	AZTERKETA SUBJEKTIBORAKO JARRAIBIDEAK
Behatutakoa deskribatuko dugu, inolako aierurik edo balioespenik egin gabe	Irudiak komunikatzen diguna deskribatuko dugu
Nolakoa da ingurua? (Koloreak eta formak) Nolakoa da irudia? (Enkoadraketa, itzalak, sinboloak...) Nolakoak dira pertsonaiak? (Itxura, keinuak...) Nolakoa da testua? (Kokapena, letra-mota...)	Nolakoa da ingurua? Ezagutzen dugu? Benetakoa da?... Nolakoa da irudia? (Zer sentsazio eragiten dizkigu?) Nolakoak dira pertsonaiak? Nor irudikatzen dute? Zergatik aukeratu dituzte?... Nolakoa da testua? (Nori zuzenduta dago? Bada behar adina informazio?...)

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Jarduerari buruzko informazio gehiago:

Nazioarteko merkataritzaren tranpak. Gida didaktikoa. Intermón-Oxfam, 2003.

Jarduera oso interesgarria da ikasleei eskatzea hainbat iragarki moztueta haietan iragarritako markak estal ditzatela, irudien eta idatzizko mezuen bidez bakarrik zer marka diren asmatzen jolasteko.



EZTABAIDARAKO BALIABIDEAK

Katalogoan jasota dagoen informazioaz gain, taula hauek informazio gehigarria eta ondorengo eztabaidarako jarraibideak eskaintzen dizkiote irakasleari.

PRODUKTUA: jeansak		
Lehengaiak	Jatorria:	Begetala
	Mota:	Kotoia
	Prozesatze-mota:	Garbiketa eta tindaketa
	Kotoia ekoizten duten herrialdeak:	Benin eta Afrika ekialdeko beste herrialde batzuk
Ingurumen-inpaktua:	Handia	
	Lurraren kutsadura eta jornalarien osasunari eragindako kaltea	Kotoi konbentzional gehiena kotoi-monolaborantzetatik dator, eta horietan pestizida ugari erabiltzen dituzte (intsektizidak, herbizidak, fungizidak...)
	Ibaien kutsadura	Jeansak produktu kutsagarriekin tindatzen dituzte. Tindu kimikoei eragina dute ingurumenean (ibaietan, atmosferan...) eta pertsonengan (langileengan eta kontsumitzaileengan).
Gizarte-eragina:	Ertaina-handia	Gehienetan, soldatak oso txikiak dira, eta lan-baldintzak oso gogorrak. Askotan, haurrek ere lan egiten dute.
Bitxitasunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Jeansen fabrikazio-kostua 7,96 euro da; Tunisiatik Bartzelonarako garraioaren kostua, 0,16 euro da; eta jostunen egun bateko soldata 0,93 euro. Bartzelonan, jeans-pare batek 50 euro inguru balio izaten du. • Kotoia da munduan gehien erabiltzen den ehun-zuntza; munduko zuntz guztien ekoizpenaren % 45 kotoiarena da. • <i>Jeans</i> izena jatorriari lotuta dago: <i>Gênes</i> (Genoa, frantsesez); izan ere, Genoako portuko langileek erabiltzen zituzten, nekez higatzen direlako. • 1850ean, Levi Strauss-ek San Frantziskora (Kalifornia) eraman zituen, urre-meategietako langileek lanerako arropa gisa erabil zituzten. 	
Alde onak		Alde txarrak
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Jatorri begetaleko ehun-zuntzak. <input checked="" type="checkbox"/> Kotoiak hezetasuna xurgatzen du; horren ondorioz, larruazalari transpiratzen uzten dio, eta, beraz, ehun freskoa da. <input checked="" type="checkbox"/> Malguak eta garbitzeko oso sendoak dira. 		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Jeansak garbitzeko eta tindatzeko prozesua zikinenetako bat da. Garbiketaren zati handiena ingurumen-legedi laxoenak dituzten herrialdeetako fabriketan egiten da, eta, horren ondorioz, ibaiak kutsatzen dira. <input checked="" type="checkbox"/> Kotoi gehiena Afrika ekialdetik dator; hango lan-baldintzak oso gogorrak dira, eta jornalari oso gutxi ordaintzen diete.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE**Informazio gehiago**

La Volta al món d'uns texans. Canviem les regles. Gida didaktikoa, Intermón-Oxfam, 2003.
Arroparen kontsumo arduratsurako gida. "Arropa garbia" nazioarteko kanpaina, Setem, 2005.
"Fibres tèxtils", Ecoterra, 1998 (pdf dokumentua): <http://www.ecoterra.org/data/pa14.pdf>

PRODUKTUA: kirol-elastikoa		
Lehengaiak	Jatorria:	Sintetikoa
	Mota:	Poliesterra
	Prozesatze-mota:	Tindaketa
	Kotoia ekoizten duten herrialdeak:	Txina eta Asia hego-ekialdeko beste herrialde batzuk.
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina-handia	
	Lurzoruaren eta atmosferaren kutsadura	Poliesterra petrolioaren deribatuekin egiten da, eta, hondakin bihurtzen denean, ez da biodegradatzen; beraz, zabortegean (lurzorua kutsatzen) edo erraustegian (atmosfera emisioak igortzen) amaitzen du.
	Ibaien kutsadura	Fabrikazio-prozesuak (zuntzen sintesia, tindu kimikoen erabilera...) eragin kaltegarria du uretan eta han bizi diren espezieetan.
Gizarte-eragina:	Handia	Gure herrialdean lanpostuak galdu dira; izan ere, hemengo enpresak itxi dituzte, eta lan-eskubideak hain zehaztuta ez dauden beste herrialde batzuetara joan dira.
		Langileei soldata oso txikiak ordaintzen dizkiete, eta 12-14 orduko lanaldiak izaten dituzte.
		Osasun-baldintzak eta segurtasun-neurriak oso eskasak izaten dira, halakorik izaten denean.
Bitxitasuna k:	• Poliesterra zuntz sintetiko guztien artean erabiliena da.	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Poliesterra oso ehun sendoa da garbiketaren aurrean, eta oso iraunkorra. <input checked="" type="checkbox"/> Poliesterrak ur gutxi hartzen du, eta, horren ondorioz, oso azkar lehortzen da. <input checked="" type="checkbox"/> Poliesterra ez da lisatu beharrik.		<input checked="" type="checkbox"/> Petroliotik abiatuta egindako zuntz sintetikoa da, eta petrolio ez da baliabide berriztagarria eta klima-aldaketa eragiten du; gainera, behin hondatutakoan, poliesterra ez da biodegradatzen. <input checked="" type="checkbox"/> Poliesterrak izerdiaren hartziduran laguntzen du (izerdia botarazten du), ez delako batere xurgatzailea. Beraz, ez du larruazalaren transpirazioa errazten. <input checked="" type="checkbox"/> Ehun sintetikoak dira pertsonen alergiekin gehien lotzen diren ehunak, substantzia toxikoekin (arropa ez zimurtzeko erabili ohi den formaldehidoarekin, esaterako) tratatuta baitaude <input checked="" type="checkbox"/> Zuntz sintetiko guztiek elektrizitate estatikoa sortzen dute. <input checked="" type="checkbox"/> Langileak esplotatzen dituzten herrialdeetan egiten da kirol-arropa gehiena. <input checked="" type="checkbox"/> Kataluniak ehungintza-industria garrantzitsua izan duen arren, enpresa askok beste herrialde batzuetan azpikontratatu dute ekoizpena, kostuak merkatzeko. Deslokalizazioaren ondorioz, lanpostu asko galdu dira Katalunian.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE**Informazio gehiago**

Setem (2005). *Arroparen kontsumo arduratsurako gida*. "Arropa garbia" nazioarteko kanpaina.
Ecoterra (1998). "Fibres tèxtils" (pdf dokumentua): <http://www.ecoterra.org/data/pa14.pdf>

PRODUKTUA: bigarren eskuko larruzko jaka		
Lehengaiak	Jatorria:	Animaliak
	Mota:	Arkume-larrua
	Prozesatze-mota:	Ontzea eta tindatzea
	Larrua ekoizten duten herrialdeak:	Asiako, Afrikako edo Hego Amerikako herrialde pobreetan ondu ohi da larrua. Katalunian fabrikatu egiten da.
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina	
	Ibaien kutsadura	Larruazalaren biodegradazio-prozesua geldiarazteko, larrua kromoarekin ondu ohi da. Ondorioz, ingurumenean inpaktu larria duten ur toxikoak isurtzen dira.
Gizarte-eragina:	Txikia	
Bitxitasuna k:	<ul style="list-style-type: none"> • Antzina, gorotza gainean birrinduz edo animalia-garunekin egindako disoluzioarekin bustiz ondu ohi ziren larruak. Horretarako estimatuenak zakur-gorotzak ziren, eta, horregatik, askotan ikusten ziren haurrak hirietako kaleetan gorotza biltzen. Era berean, gizakien gernua jasotzeko pixontziak jarri ohi ziren kale-kantoietan, gero, gernu hura larrua ontzeko erabiltzeko. Soberako larrua usteltzen uzten zen hilabete luzez; gero, sutan jartzen zen ura lurrundu arte, eta, hala, lekeda lortzen zen. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Larrua ehun leun eta malgua da, uraren aurrean oso sendoa (ez da zikintzen eta ez du kolorerik ez formarik galtzen bustitzean).		<input checked="" type="checkbox"/> Kromoarekin ondutako larrua oso kutsagarria da.
<input checked="" type="checkbox"/> Tokiko ekoizpena askoz hobe da produktuak atzeritik inportatzea baino, atmosfera gutxiago kutsatzen duelako, erregai fosil gutxiago erabiltzen direlako eta tokiko ekonomia sustatzen duelako.		<input checked="" type="checkbox"/> Gu janzteko animaliak hiltzea ez da etikoa. Animalia-zuntzak animaliei sufrimendua eragiten dieten prozeduren bidez lortzen dira.
<input checked="" type="checkbox"/> Bigarren eskuko merkataritzaren bidez arropa berrerabiltzeak produktuaren bizitza luzatzen du.		
Informazio gehiago		
Setem (2005). <i>Arroparen kontsumo arduratsurako gida</i> . "Arropa garbia" nazioarteko kanpaina. Ecoterra (1998). "Fibres tèxtils" (pdf dokumentua): http://www.ecoterra.org/data/pa14.pdf		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: kirol-zapatila sintetikoak		
Lehengaiak	Jatorria:	Sintetikoa
	Mota:	Nylona, kautxua
	Prozesatze-mota	Tindaketa, gomaztatzea eta kolatzea
	Oinetako sintetikoak ekoizten dituzten herrialdeak:	Txina, Indonesia, Vietnam, Tailandia.
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina	
	Jornalarien osasunari eragindako kalteak	Zolak egiteko goma desegiten denean, gomak igortzen duen kea arnasten dute langileek.
Gizarte-eragina:	Ertaina-handia	Lan-prekarietatea. Langile askok dituzte kola beroak sortutako erredura-orbainak, segurtasun-sistema eskasak ez baitie babesik eskaintzen.
	Bitxitasunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Espainiako hainbat tokitan <i>bamba</i> deitzen zaie kirola egiteko eta era informalean (ingelesez, <i>casual</i>) janzteko erabiltzen ditugun oinetakoei (izena Wamba marka erregistratutik sortua da). • 1987 eta 1993 bitartean, kirol-zapatilen marka horrek % 830 handitu zuen publizitatean egiten zuen inbertsioa. Estrategiak eragina izan zuen: 1989 eta 1993 bitartean, enpresaren mozkinak % 900 hazi ziren, atzeraldi ekonomikoko lau urte izan arren.
Alde onak		Alde txarrak
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Urratzeko denik eta zuntzik zailena da Nylona. <input checked="" type="checkbox"/> Transpirazioa errazten duen materiala ez den arren (zuntz sintetikoaz egin dagoelako), oinak transpiratu egin dezake mikroporoiei esker. 		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Nylona eta kautxua petroliotik datoz, eta material hori ez da ez berriztagarria, ez biodegradagarria. <input checked="" type="checkbox"/> Material sintetikoarekin egindako produktu guztiek bezala, elektrizitate estatikoa pilatzen dute, bereziki gomazko zola duten oinetakoek. <input checked="" type="checkbox"/> Enpresen deslokalizazioa. <input checked="" type="checkbox"/> Esku-lana murriztea publizitatean inbertitzeko.
Informazio gehiago		
<p>Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003): <i>Opciones</i> aldizkaria, "Les vambes", 8. alea.</p> <p>Oxfam International (2006). Jokoz kanpo! Kirol-arroparen ekoizpena eta laneko eskubideak Asian.</p>		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: larruzko kirol-zapatilak		
Lehengaiak	Jatorria:	Animaliak (larrua), sintetikoa (zola)
	Mota:	Kanguru-larrua, kautxua
	Prozesatze-mota	Ontzea, tindaketa, gomaztatzea eta kolatzea
	Kotoia ekoizten duten herrialdeak:	Txina, Vietnam eta Asiako hego-ekialdeko beste herrialde batzuk.
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina	
	Ibaien kutsadura eta jernalarien osasunari eragindako kalteak	Kromoarekin ontzeko prozesuak ingurumen-inpaktu handia du. Larrua fabrikatzeko prozesuak arrisku handiak eragiten dizkie langileen osasunari, bereziki osasun- eta segurtasun-araudi eskasak dituzten herrialdeetan.
Gizarte-eragina:	Ertaina-handia	
		Duela 20 urte Espainian kirol-oinetakoen ekoizpena oso handia zen, Alacanten bereziki. 10 urte geroago, ordea, enpresen deslokalizazioaren ondorioz, ez da ia ekoizpenik. Asiako fabrika gehienetan, ordaindu gabeko aparteko ordu asko egin behar izaten dituzte langileek.
Bitxitasuna k:	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol-zapatila pare on batek izan behar dituen ezaugarriak: oinaren ezaugarriak errespetatu behar ditu (sentikortasuna, egonkortasuna, malgutasuna eta transpiratzeko gaitasuna), babestu egin behar ditu, eta lurrarekin talka egiten lagundu (oinaren pisua zazpi halako bihurtzen da) eta urrats berria emateko bulkadan lagundu behar dio oinari. • Oinak gure gorputzeko sistema mekaniko konplexuena dira: hezur, gihar, tendoi, lotailu, odol-hodi eta nerbio ugari dituzte. Gainazal nahiko txikian gure pisu guztiari eusten diote, eta, hala, edonolako gainazalen gainean mugi gaitzke. Oinetakoek oinak babesten dituzte, eta haien lana egiten laguntzen diete. Hala ere, greziarrek oinutsik egiten zuten kirola, eta, gaur egun ere, noizean behin, kirol-oinetakorik gabe korrika egiten duten atleta profesionalak badira. 	
	Alde onak	Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Larrua material preziatuena da, bere malgutasunari, frikzioaren aurrean duen sendotasunari, iraunkortasunari eta transpirazio ona ahalbidetzeko esker. <input checked="" type="checkbox"/> Kirola egiteko oinetako-modelo hori oso ergonomikoa da.	<input checked="" type="checkbox"/> Australiak kanguru-larru asko esportatzeak animalia hori desagerraraz dezake. Australiako legeak kanguruak ehizatzeko erritmoa kontrolatzeko neurriak hartu dituen arren, gaueko isileko ehiza oso ohikoa da. <input checked="" type="checkbox"/> Larruzalaren biodegradazio-prozesua geldiarazteko, larrua kromoarekin ondu ohi da, eta produktu toxiko horrek ibaiak kutsatzen ditu. <input checked="" type="checkbox"/> Egunean ekoizpen-kuota oso altuak eskatzen dituzte, lan-baldintzen kaltetan.	
Informazio gehiago		
Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003): <i>Revista Opciones</i> 8. zk., "Les vambes" Oxfam International (2006). Jokoz kanpo! Kirol-arroparen ekoizpena eta laneko eskubideak Asian.		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: Sandalia menorcarrak		
Lehengaiak	Jatorria:	Begetala (ehuna), sintetiko birziklatua (zola)
	Mota:	Espartzua, pneumatiko-kautxu birziklatua
	Prozesatze-mota:	Tindaketa, gomaztatzea eta kolatzea
	Herralde ekoizleak	Menorca
Ingurumen-inpaktua:	Txikia	
Gizarte-eragina:	Txikia	
Bitxitasuna k:	<ul style="list-style-type: none"> • Menorcako landa-eremuetako biztanleen oinetako tradizionalak ziren. • XVIII. mendean hasi ziren oinetakoak seriean ekoizten, eta, beraz, oinetakoen zenbakera ere orduan hasi zen. Hala ere, XIX. mendearen bigarren erdira arte ez zen hartu Sistema Metriko Hamartarra. Zenbakiak oinaren luzeraren berri ematen du <i>Parisko puntuetan</i>: horiek zentimetroaren bi heren dira. Beraz, 39 zenbakiko oinetakoa 26 zentimetro luze den oinarentzako da. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Modelo hori egiteko erabilitako kautxua autoen pneumatikoetako kautxu berrerabilia da. <input checked="" type="checkbox"/> Oinetako oso freskoak dira. <input checked="" type="checkbox"/> Espartzua zuntz naturala da (landare baten hostoetatik ateratzen da), eta, beraz, biodegradagarria da. <input checked="" type="checkbox"/> Tradizioa mantentzen duen eta ekonomia soziala sustatzen duen artisau-produktua da.		<input checked="" type="checkbox"/> Tokiko artisautzako kalitatezko produktua, industrializatu gabeko prozesuaren bidez egina eta modelo ia bakarra denez, produktu garestia da.
Informazio gehiago		
<p>Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003): <i>Revista Opciones</i>, 8. zk., "Les vambes"</p> <p>Oxfam International (2006). Jokoz kanpo! Kirol-arroparen ekoizpena eta laneko eskubideak Asian. Balear Uharteetako ataria. http://www.visitbalears.com/accesible/</p>		

ETIKETATZEA
PRODUKTUA: ARROPA ETA OINETAKOAK
**Etiketen
sinboloak**

Sinbolo	LAVADO	Sinbolo	SECADO
	La prenda solo admite el lavado a mano.		Se puede secar con secadora a temperatura normal.
	La prenda no admite el lavado con agua.		Se puede secar con secadora a temperatura reducida.
	La temperatura máxima de lavado es de 30° C. (El número del interior del símbolo indica la temperatura máxima de lavado).		No se puede secar con secadora.
	Solo admite el lavado para prendas delicadas. (Agitación mínima, centrifugado flojo y corto).		Secar colgado de una cuerda.
	La prenda admite el lavado en seco.		Secar la prenda extendida en posición horizontal.
	La prenda no admite el lavado en seco.		Secar la prenda extendida en posición vertical.
Sinbolo	PLANCHADO	Sinbolo	OTROS
	No admite planchado.		No usar lejía.
	Planchar a temperatura alta, máximo 200° C.		Admite lejía en el lavado.
	Planchar a temperatura media, máximo 150° C.		No admite ningún blanqueante.
	Planchar a temperatura baja, máximo 110° C.		

**Informazio
gehiago**
<http://www.grupomaxiclean.com/>

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: hondakin toxiko gutxiko mugikorra		
Lehengaiak	Materiala:	Plastikoak, Sugar Atzeratzaile Bromatuak (BFR)
	Bateria:	Litiozko bateria
	Bizitza-zikloa:	Urte eta erdi
	Ekoiztu duen herrialdea:	Txina
Ingurumen-inpaktua:	Txikia	
	Lurraren kutsadura eta osasunari eragindako kalteak	Zenbait hondakin toxiko ditu: sugar-atzeratzaile bromatuak (BFR).
Gizarte-eragina:	Ertaina	Herrialde pobreetan ekoizten da, soldatak txikiagoak direlako, eta mozkinen zati handi bat publizitatera bideratzen da. Hala eta guztiz ere, gizarte-proiektuetan parte hartzen du enpresak.
Bitxitasuna k:	<ul style="list-style-type: none"> • Greenpeace-k egiten duen artikuluko ranking berdean, puntuaziorik onena du mugikor hau fabrikatzen duen enpresak. Ordenagailuak eta mugikorrek ekoizten lider diren eta substantzia kimikoak haien produktuetatik desagerrarazteko lanean diharduten eta haien produktuaren erabilgarritasun-bizitza amaitzean sortzen diren hondakinak birziklatzeko birziklatze-programa ona duten enpresak sailkatzen ditu rankingak. Ranking hori garrantzitsua da, gero eta gehiago baitira zabortegetan edo herrialde pobreetan erreta amaitzen duten hondakin elektronikoak, eta ingurumen-arazo larria sortzen du horrek. 	
Alde onak		Alde txarrak
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Mugikor gehienek ez bezala, ez du PVCrik (substantzia oso toxikoa), eta BFR gutxiago ditu. <input checked="" type="checkbox"/> Kontsumitzaileak produktuak botatzen dituenean, enpresa bere produktuez arduratzen da, erabilgarritasun-bizitzaren amaieran mugikorrek birziklatzeko programa baten bidez. <input checked="" type="checkbox"/> Erantzukizun Sozial Korporatiboaren proiektuetan parte hartzen du enpresak, eta mozkinen zati bat erkidegoan inbertitzen du. Hala, haurtzaindegia eta berdeguneak eraikitzen eta osasun-zentroak sustatzen ditu. <input checked="" type="checkbox"/> Bateria kargatuta dagoela adierazten duen seinale baten bidez, energia aurrez daiteke. Horrela, bateria kargatuta dagoenean mugikorra entxufeari lotuta uzteak dakarren alferrikako energia-kontsumoa (standby) saihesten du. 		<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Mugikorrek urte eta erdiko bizitza-ziklo laburra du. <input checked="" type="checkbox"/> Mugikorren enpresa multinazional handia da, esku-lanean aurretzen duen dirua mozkinetara eta publizitatean eta marketinean inbertitzera bideratzen duena. <input checked="" type="checkbox"/> BFR osagaiak ditu; pertsonentzako toxikoak dira, nerbio-sistemari eragin baitiezaioke. Ezabatzen direnean (erreta edo erraustuta), dioxinak igortzen dituzte.
Informazio gehiago		
<p>Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003): <i>Revista Opciones</i>, 6. zk., "Els ordenadors" Greenpeace. Hondakin elektronikoaren ranking berdea. (http://www.greenpeace.org/espana/campaigns/)</p>		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: Eguzkiarekin kargatzen den mugikorra		
Ezaugarriak	Materialak:	Plastikoak, PVC
	Bateria:	Eguzki-panel destolesgarria duen pila.
	Bizitza-zikloa:	4 urte
	Fabrikatzen duten herrialdeak:	Japonia
Ingurumen-inpaktua:		
	Handia	
	Lurraren eta atmosferaren kutsadura eta osasunari eragindakokalteak	Hondakin oso toxikoak ditu: PVC. Mugikorrak, erabili ondoren, herrialde pobreetara eramaten dira, eta, han, kutsadura- eta osasun-arazoak sortzen dituzte.
Gizarte-eragina:		
	Txikia-Ertaina	Hondakin elektronikoak herrialde pobreetara eramateak pertsona askori ematen die lana, baina oso egoera prekarioko lana da. Langile horietako asko haurrak dira.
Bitxitasunak:		
	<ul style="list-style-type: none"> Munduko Osasun Erakundearen (MOE) arabera, ez da erabat frogatu eremu elektromagnetikoen eragindako aldaketa biologikoak kaltegarriak direnik. Hala ere, zenbait ikerketak erakusten dute eremu elektromagnetikoen zerikusia dutela leuzemia eta Alzheimer gaixotasunekin, eta horiek nekez egotz dakizkiekeela beste arrazoi batzuei. Dena den, eremu elektromagnetikoen gortutako eragina haien maiztasunarekin lotuta dago. Sare elektrikoak eta tresna txikiek maiztasun baxuak sortzen dituzte; ordenagailuen pantailak eta lapurreten aurkako alarmek maiztasun ertainak; telefono mugikorrek, telebistek, irratiek, mikrouhin-labeek, radar-antenek eta goi-tentsioko lineek, berriz, maiztasun altuak sortzen dituzte. Eremu elektromagnetikoen maiztasuna zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta alterazio handiagoa sortzen dute. 	
Aide onak		Aide txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Energia eta dirua aurrezten ditu, eguzkiaren argiarekin kargatzen baita. Gainera, autonomia duenez eta bateria sare elektrikora konektatu behar ez denez, oso eroso da. <input checked="" type="checkbox"/> Funtzionamenduan dagoen bitartean, merkatuko mugikor gehienek baino eremu elektromagnetiko txikiagoa sortzen du mugikor horrek. <input checked="" type="checkbox"/> Mugikorrek 4 urteko bizitza-zikloa du.		<input checked="" type="checkbox"/> PVC du (substantzia oso toxikoa, gehien erabiltzen den plastikoetakoa, hain zuzen); hura ekoizteak eta desegiteak kutsadura sortzen du, dioxinak eta furanoak (kontzentrazio txikienetan ere oso arriskutsuak diren konposatu kimikoak) sortzen baititu. <input checked="" type="checkbox"/> Erabilitako mugikorrek herrialde pobreetara eramaten ditu enpresak, han hondakin gisa kudea ditzaten. Han, haurrek lan egiten duten zabortegetara eramaten edo aire librean erretzen dituzte, eta, horren ondorioz, kutsadura eta osasun-arazoak sortzen dira.
Informazio gehiago		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003), *Opciones* aldizkaria, 6. zk., "Els ordenadors"
 Greenpeace. Hondakin elektronikoen ranking berdea. (<http://www.greenpeace.org/espana/campaigns/>)
Electrónicos: alta tecnología tóxica. Greenpeace.
<http://www.greenpeace.org/espana/campaigns/t-xicos/electronicos-alta-tecnolog-a>
Pila solar NTT, 2004ko otsaila. Advanced Technology Corp.
http://www.ntt.co.jp/news/news04e/0402/040213_1.html



PRODUKTUA: Mugikor modernoa		
Ezaugarriak	Materialak:	Plastikoak, Sugar Atzeratzaile Bromatuak.(BFR)
	Bateria:	Mugimendurekin kargatzen den bateria.
	Bizitza-zikloa:	3 urte
	Fabrikatzen duten herrialdeak:	Europa
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina	
	Lurraren eta atmosferaren kutsadura eta osasunari eragindako kalteak	Hondakin toxikoak ditu: BFR. Mugikorrek baztertu ondoren, herrialde pobreetara eramaten dituzte, eta, han, kutsadura eta osasun-arazoak sortzen dituzte.
Gizarte-eragina:	Txikia-ertaina	Hondakin elektronikoak herrialde pobreetara eramateak pertsona askori lana ematen die, baina oso egoera prekarioko lana da; langile asko, gainera, haurrak dira.
Bitxitasunak:	<ul style="list-style-type: none"> Suedian ordenagailuak desegiten dituzten langileen artean egindako ikerketa batek erakutsi duenez, langile horiek ohikoa baino 65 aldiz bromo kantitate handiagoa zuten odolean. Hondakin elektronikoen zati handi bat (AEBetan erdia baino gehiago) hegoaldeko herrialdeetara bidaltzen dira; zelai eta kostaldeetan amaitzen dute; urak eta lurzorua zikintzen dituzte; laboreak eta ganadua kaltetzen dute; edateko ura hondatzen dute; eta teknologia egokirik gabe metal preziatua berrekuratzeko desegite-lantegietan lan egiten dutenen odola substantzia toxikoz betetzen dute. Zabortegira botatzea edo erraustea baino alternatiba ekologikoagoa da hondakin elektronikoak berreskuratzea. Adibidez, mugikorrek desmunta daitezke, osagai arriskutsuak isola daitezke eta horiek tratatzeko baimendutako kudeatzaileei eman dakizkieke. Birrintzeko fasean, motaren arabera sailkatzen dira materialak, birbalioztatu egiten dira, eta berreskuratzeke tratatzen dira; azkenik, erabil ditzaketen industriei saltzen zaizkie. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Energia eta dirua aurrezten du, mugikorra lepotik zintzilik daramagula ibiltzean mugimendu pendularrekin kargatzen delako. Bateria kargatzeko sare elektrikoa behar ez denez, askoz erosoagoa da. <input checked="" type="checkbox"/> Merkaturatu berria da modeloa, eta diseinu ikusgarria du.		<input checked="" type="checkbox"/> BFR osagaiak ditu; pertsonentzako toxikoak dira, nerbio-sistemari eragin baitieziaokete. Ezabatzen direnean (erreta edo erraustuta), dioxinak igortzen dituzte. <input checked="" type="checkbox"/> Erabilitako mugikorrek herrialde pobreetara eramaten ditu enpresak, han hondakin gisa kudea ditzaten. Herrialde horietan, haurrek lan egiten duten zabortegietara eramaten edo aire librean erretzen dituzte, eta, horren ondorioz, kutsadura eta osasun-arazoak sortzen dira..

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

	<input checked="" type="checkbox"/> Produktu oso eksklusiboa eta berria denez, merkatuko modelo garestienetako bat da.
Informazio gehiago	
<p>Centro de Investigación e Información en Consumo (CRIC) (2003), <i>Opciones</i> aldizkaria , 6. zk., "Els ordenadors"</p> <p>Greenpeace. Hondakin elektronikoen ranking berdea. (http://www.greenpeace.org/espana/campaigns/)</p> <p>Kontsumo-ondasunei buruzko informazioa eskaintzen duen irizpide ekologistadun atari independentea. www.verdeandoconsumo.blogspot.com</p>	

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: Bidezko merkataritzako futbol-baloia		
Lehengaiak	Jatorria:	Funtsean sintetikoa
	Mota:	Poliuretanozko larru sintetikoa, poliesterra edo kotoia, latexa edo butyla.
	Prozesatze-mota:	Tindaketa eta jostea.
	Herrialde ekoizleak:	Pakistan
Ingurumen-inpaktua:	Ertaina	
	Lurzoruaren eta atmosferaren kutsadura	Material plastiko sintetikoek (poliuretanoa, poliesterra eta abar) atmosfera kutsatzen duten arren, fabrika horrek emisio kaltegarriak atxikitze iragazkiak ditu. Material plastikoak ez dira biodegradagarriak, airea (errautsen direnean) eta lurzorua (botatzen direnean) kutsatzen dituzte.
Gizarte-eragina:	Batere ez	
Bitxitasunak:	<ul style="list-style-type: none"> Fabrikaren izenak (Talon) «arrano-atzaparra» esan nahi du; Pakistango emankorrena den Punjab probintziako Sialkot barrutian dago. Duela 20 urte ireki zuten, 1.500 jostun ingururi ematen die lana, eta urtean 1,2 milioi baloi ekoizten ditu. Gainera, atezainen eskularruak eta kirol-arropa ekoizten ditu. Lantegiaren helburu nagusia helduak kontratatzea da, haurrek eskolara joateko aukera izan dezaten. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Material oso sendoeekin eta iraunkorrekin egina da. <input checked="" type="checkbox"/> Produktu solidarioa da: Hegoaldeko ekoizletaldean produktuei merkatura ateratzen laguntzen die. <input checked="" type="checkbox"/> Kalitate handiko produktua eta giza eskubideak errespetatuz egindakoa. Lan-eskubideak errespetatzen dituen, emakumeak lan-merkatuan sartzea errazten duen, haurren esku-lana erabiltzen ez duen eta inguruko erkidegoen hobekuntzan inbertitzen duen erakunde batean josia.		<input checked="" type="checkbox"/> Baloi horiek egiteko erabiltzen den larrua ez da erraz birziklatzen.
Informazio gehiago		
Intermón-Oxfam (www.intermonoxfam.org.) Abacus kooperatiba. (www.abacus.coop)		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: Markako futbol-baloia		
Lehengaiak	Jatorria:	Sintetikoa
	Mota:	Kautxua eta latexa
	Prozesatze-mota:	Jostea eta tindatzea
	Herrialde ekoizleak:	Asiako hego-ekialdea: Txina, Vietnam eta abar.
Ingurumen-inpaktua:	Txikia	
	Lurzoruaren kutsadura	Kautxua zabortegetan pilatzen bada, mendeak behar ditugradatzeko.
Gizarte-eragina:	Ertaina	Soldata eta lan-baldintza eskasak.
Bitxitasunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Kautxua ez da biodegradagarria. Hala ere, oso erraz birziklatzen da. Pneumatikoen kautxua, adibidez, errepedeetarako asfaltoa egiteko, haur-parkeak egiteko eta temperatura- eta zarata-isolatzaileak egiteko birziklatzen da. Birziklatzeak bere kalitatea hobetzen du: asfalto hobea lortzen da, kautxuak betunarekin batera errepedeetako zarata murrizten du, itsasgarritasuna areagotzen du, eta errepedeetako ura hobeto iragazten du. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Kalitate eta iraunkortasun handia. <input checked="" type="checkbox"/> Kautxua birziklagarria da.		<input checked="" type="checkbox"/> Kautxua petroliotik dator, eta petrolio ez da ez berriztagarria, ez biodegradagarria. <input checked="" type="checkbox"/> Soldata eta lan-baldintza eskasak. <input checked="" type="checkbox"/> Irudiaren kulturen, markako kirol-artikuluen (adibidez, baloien) salmenta-prezioak marketin-gastu guztiak estali behar ditu.
Informazio gehiago		
Intermón Oxfam (www.intermonoxfam.org) Abacus kooperatiba. (www.abacus.coop)		

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

PRODUKTUA: Joko tradizionalen bilduma		
Lehengaiak	Jatorria:	Funtsean naturala
	Mota:	Pago- eta pinu-egurra, kalamua (sokasaltoko soka), kautxua (diaboloa), jatorri begetaleko kolak, ur-oinarriko pintura eta bernizak.
	Prozesatze-mota:	Zurgintza, pintaketa, txirikordatzea (sokak).
	Herrialde ekoizleak:	Katalunia
Ingurumen-inpaktua:	Txikia	
	Lurzoria eta atmosfera kutsatzeko ahalmena	Diaboloa zabortegira edo erraustegira botatzen bada bizitza erabilgarria amaitutakoan, lurra edo atmosfera kutsatuko ditu, hurrenez hurren.
Gizarte-eragina:	Batere ez	
Bitxitasuna k:	<ul style="list-style-type: none"> • Egur ekologikoa ingurumenari kalterik egin gabe lortzen da . Basogintza-ziurtapena 90eko hamarkadan sortu zen, egurraren ustiaketa komertzialak deforestazioan duen eraginak sortutako kezkaen ondorioz. Nazioarteko basogintza-ziurtapenaren sistema garrantzitsuenak Basogintzako Administrazioaren Kontseilua (Forest Stewardship Council, FSC) eta Basogintzako Ziurtapenen Sistema Paneuroparra (PEFC) dira; azken horrek gardentasun gutxiarekin ematen ditu ziurtapenak (sinesgarritasun eskasa du). Garrantzitsuena FSC da, mundu-mailan ustiatutako basoetako baliabideen babesa bermatzen duen bakarra da, bideragarritasun ekonomikoa (ustiaketa epe luzera errentagarria izatea), gizarte-onura (indigenen eskubideak errespetatzea) eta ingurumen-ardura (ingurua ez degradatzea) bermatzen dituen bakarra baita. • Lehen ziurtapena, 1993an sortua, FSCrena izan zen: nazioarteko erakunde independentea, gobernuz kanpokoa eta irabazi-asmorik gabea da; baso-jabeek, egur-industriek, tokiko erkidegoek eta herri indigenek eta erakunde ekologistek osatzen dute; Iparraldeko eta Hegoaldeko herriek % 50eko ordezkariak dute. 	
Alde onak		Alde txarrak
<input checked="" type="checkbox"/> Batez ere jatorri begetaleko material naturalez egina bilduma. <input checked="" type="checkbox"/> Egurra material berriztagarria da, iraunkorra, berrerabilgarria, erraz birzikla daitekeena eta konpostagarria. Gainera, FSC basogintza-ziurtapena duenez, kudeaketa jasangarria du. <input checked="" type="checkbox"/> Erabilitako pintura eta bernizak sintetikoak dira, ez dute metal astunik, ez lurrunak (konposatu organiko lurrunak) igortzen dituzten disolbatzaileak. <input checked="" type="checkbox"/> Tokian ekoiztutako produktua da, gure gizartean lanpostuak sortzen dituena eta garraioak sortzen dituen atmosferaren kutsadura eta energia-gastua saihesten dituena.		<input checked="" type="checkbox"/> Diaboloaren gomazko pieza egiteko erabilitako kautxua petroliotik sortua da, eta petrolioia ez da ez berriztagarria, ez biodegradagarria.
Informazio gehiago		
Egur ekologikoaren ziurtapena (www.fsc-spain.org) www.terra.org		

JARDUERAK

3. Nire aukera da...

3. Etapa:	EDUKIAK AURKEZTEKO ETA EGITURATZEKO ETAPA: KONTSUMO-IRIZPIDEAK
Tipologia:	ikuspuntu berriak aurkezteko jarduera
Iraupena:	25 minutu
Materiala:	Produktuen fitxak. Baliosteko taula. Eraikitzeo irudiak. Zapiak.

HELBURUAK

- Kontsumo-ekintza batean eragina duten faktoreei buruz gogoeta egitea.
- Herritarrek kontsumoaren aurrean duten norbanakoaren arduraz eta gizarte-arduraz jabetzea, eta kontsumo-ekintzen ondorio ekologiko eta sozialak ezagutzea.

GARAPENA

1. Zer erosten dugu benetan?

Katalogoak produktuei buruz eskaintzen digun informazioa gorabehera, kontsumitzeko ekintzak baditu beste ondorio batzuk ere, askotan nabarmenak ez direnak. Dinamika honen bidez, taldeetako parte-hartzaileek aukeratu duten produktu-tipologiaren atzean gordeta dagoena ikusiko dute.

Talde bakoitzak bere eguneroko bizitzako lau pertsonaiak (lagun-taldeak, gurasoek, denda espezializatuetako saltzaileak eta enpresari edo produktu-saltzaileak) emandako informazioa jasoko du; hau da, haien ustez aukerarik onena zein den ezagutuko du. Gainera, informazio jakin bat eskura daiteke produktuan espezializatutako web orri batean.

Parte-hartzaileek era nahasian eta banatuan eskuratuko dute informazio hori, eta sistematizazio- eta puntuazio- taula batean jaso behar dute. Informazioa jaso ondoren, aukeratutako tipologiako hiru produktuetatik egokiena zein den balioetsiko dute.

2. Lankidetzan jardunez: informazio-dorrea

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Pertsonaiek ematen duten informazioa gordetzen duten gutun-azalak lortzeko, elkarrekin lan egin beharko dute talde bakoitzeko kideek . Talde bakoitzak egurrezko bost eraikuntza-irudi izango ditu, dorre bat eraikitzeke kokatu beharko dituenak. Dorrea eraikitzeke, begiak estaliko zaizkie parte-hartzaile guztiei, talde bakoitzaren mugimenduak eta piezak kokatzeko prozesua gidatuko dituen haurrari izan ezik.

Dorrea eraikitzeke piezak hainbat formatako material birziklatuak izan daitezke (tetrabrik bat, latorrizko pota bat, kartoizko tutu bat, porexpan-lauki bat eta plastikozko botila bat), eta tailerra egingo dugun egunerako etxetik ekar ditzatela eskatuko diegu haurrei.

Dorre gisa jarri ahal izan den pieza bakoitzak pertsonaia baten informazioa duen gutun-azal bat ekarriko du.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

2. Taldeen puntuazioa

Lortutako informazioaren bidez, taldeek honako balioespen-taula hau osatuko dute. Puntuazio-baremoa -3tik +3rako da: -3ko puntuazioa produktuen ezaugarri oso negatiboak dagokie, eta +3ko puntuazioa, berriz, ezaugarri oso positiboak.

	-3	-2	-1	0	+1	+2	+3
	Oso negatiboa	Nahiko negatiboa	Ez oso negatiboa	Neutroa	Ez oso positiboa	Nahiko positiboa	Oso positiboa
					A produktua	B produktua	C produktua
	PRODUKTUAREN TIPOLOGIA				IZENA:	IZENA:	IZENA:
1	Gustatuko zaio						
2	Gizartean balioespen handiko produktua da (modakoa)						
3	Baliagarria izango zaio						
4	Kalitatezkoa da. Iraungo dio						
5	Kalitate/prezio erlazio ona du						
6	Fabrikatzeko, baliabide natural gutxi erabiltzen dira. Baliabide natural berriztagarriak dira						
7	Fabrikazioan, garraioan eta ebazpenean, ingurumen-inpaktu txikia sortzen du						
8	Fabrikazioan, eragin sozial txikia sortzen du						
9	Erosteke ordaintzen dugun dirua berdintasunez eta bidezko eran banatzen da.						
10	Nahiko informazio dugu bere jatorriari, osaerari eta ekoizpenari buruz						
	PUNTUAZIO OROKORRA						

JARDUERAK

4. Oparirik onena

4. Etapa: APLIKAZIOA: KONTSUMO-EKINTZA**Tipologia:** Erabakiak hartzeko jarduerak**Iraupena:** 20 minutu**Materiala:** Ebaluatzeko horma-irudia.

HELBURUAK

- Besteen ideiak kritikoki errespetatzea eta talde-lanetan parte hartzea.
- Kontsumo-ekintza bati eragiten dioten faktoreei buruz gogoeta egitea.
- Herritarrek kontsumoaren aurrean duten norbanakoaren arduraz eta gizarte-arduraz jabetzea, eta kontsumo-ekintzen ondorio ekologiko eta sozialak ezagutzea.

GARAPENA

1. Zer erosiko dugu?

Talde bakoitzak hiru produktuen gainean egin duen ikerketa txikia azalduko du, aukera bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak azpimarratuko ditu, eta oparia egiteko aukera onena zein den argudiatuko du.

Produktuen balioespenak eta puntuazioak azaltzean, garrantzitsua da aipatzea balioespen-itemetan adostasuna egon den edo desadostasuna sortu duen talde barruan.

Talde guztien ondorioak aurkeztu ondoren, eztabaida hasiko da gelakide guztien artean aukera onena zein den erabakitzeko.

Eztabaidan, kontsumo arduratsuaren baldintza hobezin guztiak betetzen dituen produkturik baden planteatuko da, eta irekita utziko da ikasleek aukera alternatiboak aurkezteko aukera (zuzeneko kontsumorik ez dakarren opari bat egitea, opari bat eskuz egitea produktu birziklatuekin...). Horrela, hezitzaileak beste ikuspegi batzuk sartuko ditu eztabaidan, hala nola kontsumorik ezari dagokiona edo bidezko merkataritzako produktuen kontsumoari dagokiona.

TALLER CONSUMO RESPONSABLE

Eztabaidan, saiatuko gara esploratzen zer behar eta borondate dagoen salaketa- eta presio-ekintzak abian jartzeko, kanpainen eta ekintzen adibideak jarritz: *Arropa Garbia* kanpaina, kontsumoaren aurkako -greba- egunak, *autorik gabeko* eguna eta abar.

BALIOESPENA

Irakasleentzako ebaluazio-galdetegia

	at	er	e	ut	gi	hi	A	sk	o
Zure ustez, tailerraren edukiak egokiak dira?									
Tailerrak piztu du ikasleen interesa?									
Tailerra erabilgarria izan da kontzeptuak lantzeko?									
Tailerra erabilgarria izan da prozedurak eta balioak lantzeko?									
Zure ustez, fitxen eta materialen diseinua erakargarria da?									
Zure ustez, fitxetako eta material osagarrietako informazioa ulergarria da?									
Gomendatuko zenioke tailer hau lankideren bati?									

Nabarmendu tailerraren 3 alderdi positiboak	<ul style="list-style-type: none"> • • •
--	---

Adierazi hobetzea proposatuko zenituzkeen 3 alderdi	<ul style="list-style-type: none"> • • •
--	---

Beste ohar batzuk	
--------------------------	--